

Estrategia: Ikerketa sendotzea, EAEn Elikagaien
Segurtasun maila al bait handiena izan dadin

2011 2013

2014-2016RAKO LUZAPENA

EAEn

ELIKAGAIEN SEGURTASUN ARLOKO IKERKETARAKO PLAN ERAGILEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1.1. Elikagaien Segurtasun arloaren bilakaera
- 1.2. Erreferentzia markoa: PEICA
- 1.3. Helburu eragilea

2. ESKUMENA

3. ELIKAGAIEN SEGURTASUN ARLOKO ESPARRU ESTRATEGIKOAK

4. PLANAREN HARTZAILEAK

5. JARDUERAILDOAK

6. EKINTZA ERAGILEAK ZABALTZEA

7. PLANAKUDEATZEKO EGITURA

8. FINANTZAZIOA

9. BALIOESPENA ETA JARRAIPENA

10. ERANSKINAK

- I. Eranskina: Ikerketa arloan identifikatutako beharren zerrenda
- II. Eranskina: Lehentasunezko beharren balioespenen zerrenda
- III. Eranskina: Plan honek jorratzen dituen amaierako lehentasunezko beharren zerrenda
- IV. Eranskina: Elikagaien Segurtasun arloko ekintzak finantzatzeko programak

1. SARRERA

1.1 ELIKAGAIEN SEGURTASUN ARLOAREN BILAKAERA

Elikagaien Segurtasuna bermatuta dago baldin eta pertsona guztiek, fisikoki zein ekonomikoki, uneoro eskuragarri badituzte elikagai ez kaltegarriak eta nutritiboak, euren elikagai beharrak asetzeko eta bizitza aktiboa eta osasuntsua izateko (*Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea, FAO*).

Herrialde garatuetan (EBko herrialdeak eta oro har mendebaldeko herrialdeak) garrantzitsuena da elikagaien kaltegabetasuna; izan ere, horrelakoetan, bermatuta dago elikagaiak eskuratzea. Beraz, kaltegabetasunari zuzenduta daude kontrolerako politika guztiak.

Europako Batzordeak lehentasuntzat hartu zuen Elikagaien Segurtasuna, eta legegintza jarduerarako programa bat ezarri zuen, “baseritik mahaira” kontzeptuan oinarrituta. Horiek guztiak bilduta daude Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zurian (2000.



urtea). Dokumentu horretan, elikagaiekin lotutako politika proaktiboak eratzeko planak ezarri zituzten: legedia berritzea, arau koherente eta gardenak izateko; elikakatean egindako kontrolak sendotzea; eta zientzia-aholkularitzako sistemaren gaitasuna areagotzea, bermatzeko giza osasuna eta kontsumitzaileen babesa handia izango dela.

Elikagaien Segurtasuna eta nutrizioa sektorearteko, faktore anitzeko eta, inolako zalantzarik gabe, konplexutasun handiko arloak dira, eta horrek eskatzen du Elikagaien Segurtasunaren kudeaketa osoari balio erantsia emango dioten tresnak izatea ekoizpen, elaborazio, banaketa eta kontsumo kate osoan.

Beraz, zientzia aholkularitza eta ikerketa dira Europako Batasuneko elikagaien segurtasunerako politiken funtsezko oinarrietako bat.

Elikagaien arriskuak modu eraginkorrean balioetsi, kudeatu eta jakinarazteko, beharrezkoa da zientzia-aholkularitza independentea, bikaina eta gardenaz izatea.

Elikagaien Segurtasun arloko printzipio horiek betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak organoak eratu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) elikagaien arriskuak balioesteko, aztertze eta horien gaineko aholkuak emateko: Kudeaketa Batzordea, Zientzia Batzordea eta Batzorde Teknikoak (63/2009 Dekretua).

EAEko Elikagaien Segurtasunerako Zientzia Batzordearen helburua da, batetik, euskal herritarren esposizio maila balioestea elikagaiek transmiti ditzaketen arriskuekiko, eta, bestetik, ekintza zehatzei buruzko gomendioak ematea. Horrela, kudeatzaileek erabaki koherenteak eta neurrikoak hartu ahal izango dituzte, arrisku horiek saihestu edo murrizteko.

Hori dela eta, testuinguru honetan, ikerketa ezinbestekoa da. Gainera, lankidetzak, koordinazio eta integrazio maila handiagoa sustatu behar da elikagaien segurtasun arloan lanean diharduten eragileen artean. Horrez gain, berrikuntza eta transferentzia teknologikoa bultzatu behar dira, lehentasuna eman behar zaie euskal nekazaritzako elikagaien sektorearentzat interesa duten eta osasun publikoan eragina duten arazoei.

“Ondorioz, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketa Plan honen helburua da ezagutza transmititzea eta EAEko Elikagaien Segurtasun maila ahalik eta handiena lortzeko eraginkortasuna eta baliabi-deak optimizatzea”.



1.2 ERREFERENTZIA MARKOA: PEICA

Elikagai Industriaren eta Kalitatearen Euskal Herriko Plan Estrategikoaren Berrikuntzaren Ardatz Estrategikoak 2010-2013 (PEICA) honako estrategia hau biltzen du eta bertan sartzen da Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragilea:

E-8 estrategia: IKERKETA SENDOTZEA, EAE-N ELIKAGAIEN SEGURTASUN MAILA ALBAIT HANDIENA IZAN DADIN

Helburua: Baliabide ekonomikoak optimizatzea eta Elikagaien Segurtasun arloko ikerketaren eraginkortasuna hobetzea, I+G+b arloko eragileekin eta elikagaien industriekin batera.

JARDUERA ESANGURATSUAK:

- 1.I+G+b eragileekin, administrazioarekin eta Elikagaien Segurtasun arloan lanean diharduten erakunde guztiekin batera, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia dinamizatzea.
- 2.Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragilea garatzea. Plan horrek bilduko ditu EAE-n arlo horretan ikerketarako lehentasunezko beharrak.
- 3.EAEko I+G+b eragile guztiak ikertzaile-plataforma batean integratzea, Elikagaien Segurtasun arloko informazioa eta ezagutza partekatzeko.

- 4.Ikerketa proiektuetan inbertsioak egin eta horiek babestea. Proiektu horien helburua izango da euskal nekazaritzako elikagaien katean sar daitezkeen eta giza osasunean, animalien eta landaren osasunean eta ingurumenean kaltea eragin dezaketen arriskuak kontrolatzea eta aurrea hartzea.
- 5.Europako ERANET sareetan, Plataformetan eta Programetan parte hartzea, Elikagaien Segurtasun arloko ikerketarako gaur egungo zein etorkizuneko estrategia-ekintzak definitzeko.

FINANTZATZEKO ETA BABESTEKO TRESNAK	PLAN ERAGILEAK
Ikusi IV. eranskina: Finantzazio programak, ardatz horizontalei lotuta	Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plana

1.3 HELBURU ERAGILEA

Honako hau da Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan honen helburu eragilea: arriskuak antzematen, kontrolatzen eta horiei aurrea hartzen lagunduko duten ikerketa proiektuen aldeko apustua egitea eta horiei babes eskaintzea. Arrisku horiek nekazaritzako elikagaien katean sar daitezke eta giza osasunean arriskuak sor ditzakete.

2. ESKUMENA

Plan honen eskumena da Elikagaien Segurtasuna bermatzea euskal nekazaritzako elikagaien kate osoan.

Europako araudiarekin bat, Elikagaien Segurtasunak bermatu egiten du “gardentasuna, analisia eta elikagaiekin lotutako arriskuei aurrea hartzea, kontsumitzaileen osasuna babesteko, betiere aintzat hartuta baserritik/itsasotik/landaretik mahaira” ikuspegi orokorra.

Elikagaien Segurtasun arloko printzipio orokor nagusietako bat da elikakate osoan ikuspegi orokorra izatea, integratua, “baserritik eta itsasotik mahaira” kontzeptuarekin bat (178/2002 (EE) Araua eta Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zuria 2000).

Horregatik definitu dira Elikagaien Segurtasunari balioa eransten dioten elikakateko osagai gisa honako hauek:

- Lehen Sektorea: arrantza sektorea, nekazaritza eta abeltzaintza sektorea eta pentsuen sektorea.
- Eraldaketa Sektorea eta Sektore Laguntzaileak: Elikagaien eta Pentsuen Industria.
- Banatzea eta Merkaturatzea.
- Elikagaien azken kontsumitzailea.

Halaber, ingurumen faktorea sartu beharko litzateke iraunkortasunaren eta energiaren eta baliabideen aurrezte eremuan; izan ere, balio-kate osoari eragiten dio modu horizontalean.



BASERRITIK MAHAIRA

▣ LEHENENGO FASEA: NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA



Landareen Osasuna

Lehengaiak

Higienea



Animalien Osasuna

Higienea

Elikagaiak sorturiko Zoonosiak

Etiketatzeara

Animalien Ongizatea

▣ ERALDAKETA ETA BANAKETA FASEA




Elikagaien Industria

Pentsuen ekoizpena

Elikagaiak banatzea

Merkaturatzea

▣ KONTSUMO FASEA



Elikagaien kontsumoa

Sukaldaritza eta Elikagaien Zerbitzuak

Nutrizioa

Dieta

INGURUMENA

ESKUMENA

05

3. ELIKAGAIEN SEGURTASUN ARLOKO ESPARRU ESTRATEGIKOAK

Oinarritzat hartzen baditugu, Elikagaien Segurtasun arloko erreferentziazko erakundeek (besteak beste, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentzia (EFSA), Elikagaien Segurtasuneko Britainiako Agentzia (FSA), Elikagaien Segurtasuneko eta Nutrizioko Espainiako Agentzia (AESAN) eta SAFEFOODERA Eranet) zehaztutako ikerketarako esparru estrategikoak eta aintzat hartzen baditugu Eusko Jaurlaritzako sailtako estrategiak, honako esparru estrategiko hauek ezartzen dira, EAEko ikerketa erakundeek lehenik eta behin ikerketa ildoak kokatu ditzaten, eta, ondoren, ikerketarako etorkizuneko lehentasunak antzeman ditzaten:

1 ARRISKU KIMIKOAK: elikagaietan aurkitzen ditugun konposatu edo substantzia kimikoak, giza osasunean arazoa edo arriskua eragin dezaketenak.

- **Naturan daudenak:** metal astunak, mikotoxinak, nitratoak, itsasoko biotoxinak, alergenak...
- **Nahita gehitutakoak:** sendagaiak eta horien hondakinak, hormonak, landare-osasunerako produktuak eta horien hondakinak, ongarriak...
- **Prozesuak eragindakoak:** dioxinak, akrilamida, hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak...
- **Elikagaiekin kontaktuan dauden materialak:** bisfenola, ftalatoak, entzimak, gehigarriak...
- **Arrisku berriak (sor litezkeenak edo berriz ager litezkeenak):** nanopartikulak eta horien hondakinak, sendagai berriak...
- **Ingurumen arriskuak:** konposatu kimikoak ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeenak eta euskal nekazaritzako elikagaien katean sar daitezkeenak.

2 ARRISKU BIOLOGIOAK: agentes de origen biológico presentes en los animales y/o alimentos que puedan conllevar un problema, peligro o riesgo para la salud humana y/o animal.

- **Priones:** EEB, EETs...
- **Birusak:** Hegaztien Gripeak; Norobirusa...
- **Bakteriak:** *E.coli*, *Salmonella*, *Listeria*, *Campylobacter*, *Clostridium*,...
- **Parasitoak:** Anisakis,...
- **Arrisku berriak (sor litezkeenak edo berriz ager litezkeenak):** eragile biologiko berria, faktore etiologiko berria...
- **Ingurumen arriskuak:** Eragile biologikoak ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeenak eta euskal nekazaritzako elikagaien katean sar daitezkeenak.



3 ARRISKUAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO METODOLOGIA: Elikagaiek sor litzaketen arriskuak identifikatzeko eta balioesteko beharrezkoak diren metodologiak eta tresnak.

4 TRAZABILITATEA: Gizakientzako eta animalientzako elikagaiak eta horien lehengaiak, Elikagaien Segurtasunean eragina izan ditzaketenak, arakatzeko metodologiak.

- Elikagaiak eta horien osagaiak egiaztatzea: espezifikatzea eta aizuntzea
- Lehengaiak lortzea
- Prozesatzea
- Banatzea
- Etiketatzea
- OGMak (Genetikoki Eraldatutako Organismoak)

5 ELIKAGAIEN ARLOKO TEKNOLOGIA: Elikagaien Segurtasunean eragina duten elikagaien ekoizpen fasean tresnak eta teknologiak garatzea.

- Arriskuak antzemateko, diagnostikatzeko eta kontrolatzeko on-line sistemak
- Teknologia eta prozesu berriak Alimentaria.

6 KONTSUMOA ETA OSASUNA: kontsumoarekin, osasunarekin eta nutrizioarekin lotutako alderdiak, Elikagaien Segurtasunean eragina dutenak.

- Kontsumo ereduak
- Erabateko dietari buruzko azterlanak
- Elikagai funtzionalak
- Elikagai berriak (Novel Food)
- Elikagaien gehigarriak eta osagarriak
- Elikadura Ohitura Osasuntsuak
- Nutrigenomika



ARRISKU KIMIKOAK

- Naturan daudenak
- Nahita gehitutakoak
- Prozesuak eragindakoak
- Elikagaiekin kontaktuan dauden elementuak
- Arrisku berriak
- Ingurumen arriskuak

ARRISKU BIOLOGIKOAK

- Prioiak
- Birusak
- Bakteriak
- Parasitoak
- Arrisku berriak
- Ingurumen arriskuak

ARRISKUAK BALIOESTEKO METODOLOGIAK

ELIKAGAIEN ARLOKO TEKNOLOGIA

- Arriskuak antzemateko, diagnostikatzeko eta kontrolatzeko sistemak
- Teknologia eta prozesu berriak

TRAZABILITATEA

- Elikagaiak egiaztatzea
- Lehengaiak ekoiztea
- Prozesatzea
- Banatzea
- Etiketatzea
- OGMak

KONTSUMOA ETA OSASUNA


- Kontsumo ereduak
- Erabateko dietaren azterlana
- Elikagai funtzionalak
- Novel Food
- Elikagaietako gehigarriak eta osagarriak
- Elikadura ohitura osasuntsuak
- Nutrigenomika

4. PLANAREN HARTZAILEAK

Plan hau zuzenduta dago EAEn Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa-jarduerak gauzatzen dituzten eragile guztiei, alegia:

- **Lehen sektoreari eta Elikagaien Industriari**, euskal nekazaritza elikagaien kateko partaide direlako. Horrela, euren beharrei eta kezkei erantzuna emango dieten ikerketa-lehentasunak ezagutu eta Planean behar berriak gehitu ahalko dituzte.
- **I+G+b eragileei**, EAEn ikerketa-jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak direlako, eta ezagutzak eta euren inguruan antzemandako Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako beharrak betetzeko finantzazioa partekatzen dutelako.
- **Elikagaien Segurtasunerako Zientzia Batzordeari (CC)**, Elikagaien Arriskuak balioesteko organoa delako. Horrela, arriskuak identifikatzen eta balioesten lagunduko duen zientzia informazioa biltzeko lana errazagoa izango dute.
- **Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari**, nekazaritza, arrantza eta elikadura arloan, animalien eta landareen osasun arloko ikerketaren arduraduna delako, bai eta nekazaritzako elikagaien sektorean Elikagaien Segurtasuna sustatzeko arduraduna ere. Horrela, Elikagaien Segurtasun arloko ikerketarako behar estrategikoak eskainiko dituzte.
- **Osasun Sailari**, Osasun Publikoaren eta osasun zerbitzuen horniduraren organo arduraduna delako. Horrela, giza osasunean eragina izan dezaketen elikagaien arriskuei aurrea hartzeko eta/edo murrizteko ikerketarako behar estrategikoak eskainiko dituzte.

- **ELIKAri**, Eusko Jaurlaritzako nekazaritza, elikadura, abeltzaintza, arrantza, kontsumo eta osasun arloko sail eskudunei aholkularitza teknikoa eta zientzia aholkularitza ematen dizkien erakundea delako. Horrez gain, herri-administrazioen, unibertsitateen, eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzak sustatzen du eta Elikagaien Segurtasun arloko zientzia eta teknika informazioa banatzen du.
- **Foru Aldundiei**, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko lehenengo mailako ekoizpenean organo eskudunak diren neurrian, nekazaritzako elikagaien arriskuak prebenitu edo/eta murrizteko ikerketa-behar estrategikoak emanez.



5. JARDUERA ILDOAK



1. ZIENTZIA EZAGUERA ETA TEKNOLOGIA TRANSFERENTZIA SORTZEA.
2. KOOPERAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA I+G+B ARLOKO ERAGILEENARTEAN.
3. ERAGINKORTASUNA ETA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA IKERKETETAN.
4. EZAGUTZA TRANSFERITZEA ETA EMAITZAK EZAGUTARAZTEA.

6. EKINTZA ERAGILEAK ZABALTZEA

1. taulan biltzen dira jarduera ildoei dagozkien ekintza eragileak.

JARDUERA ILDOAK	EKINTZA ERAGILEAK
Zientzia ezaguera eta teknologia transferentzia sortzea	1.1 EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma. 1.1.1 Gaur egungo ikerketa-ildoak. 1.1.2 Ikerketen talde arduradunak. 1.1.3 Ikerketa arloko etorkizuneko beharrak. 1.2 EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordea.
Kooperazioa eta lankidetzak sustatzea I+G+b arloko eragileen artean	2.1 Elikagai Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia. 2.2 I+G+b eragileak eta nekazaritzako elikagaien sektoreak batera parte hartzea. 2.3 Itunak eta lankidetzak hitzarmenak lortzea autonomia, Estatu eta Europa mailako beste erakunde publiko batzuekin.
Eraginkortasuna eta baliabideak optimizatzea ikerketetan	3.1 Ikerketarako beharrak lehenestea. 3.2 Ikerketarako lehentasunezko beharrak balioestea eta onestea. 3.3 Finantzazio programak.
Ezagutza transferitzea eta emaitzak ezagutaraztea	4.1 Komunikaziorako Planak . 4.1.1 Plana hedatzea eta ezagutaraztea, eta behar berriak antzematea 4.1.2 Emaitzak jakinarazteko jardunaldia.

Jarraian, jarduera ildoekin bat datozen ekintza eragile guztiak zehaztuko dira:

ZIENTZIA EZAGUERA ETA TEKNOLOGIA TRANSFERENTZIA SORTZEA

1.1 EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma

Helburuak:

► 1.1.1 Gauregungo ikerketa-ildoak

Gaur egungo ikerketa ildoen mapa osatzea. EAEko ikertzaileak espezializatuta egongo dira ildo horietan.

► 1.1.2 Ikerketen talde arduradunak

Ikerketa ildo horien ikertzaile arduradunen taldeak ezagutzea, EAEko Elikagaien Segurtasunerako Zientzia Batzordeak kontsulta ditzan.

► 1.1.3 Ikerketa arloko etorkizuneko beharrak

Ikerketarako etorkizuneko beharrak identifikatzea eta biltzea epe motzera nahiz ertainera. Behar horiek EAEko Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa garatu, kudeatu eta horien inguruko aholkuak ematen dituzten eragile guztiek identifikatuko dituzte.

Betekizunak:

Kudeaketarako lanabes batean biltzea EAEko gaur egungo ikerketa ildoak, ikerketa taldeak eta ikerketarako etorkizuneko beharrak. Lanabes hori ikusgai egongo da Elikagaien Segurtasun arloan lanean diharduten ikertzaile guztientzat eta EAEn Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa garatu, kudeatu eta horien gaineko aholkularitza ematen duten Ikerketa Mahaiko kide guztientzat.

Edukia:

Ikerketa Plataformako adierazleak ikerketa ildo bakoitzari dagozkio. Honako hauek dira adierazleak:

- Ikerketa taldearen arduraduna (izena, abizenak, telefonoa, e-posta...)
- Ikertzaileen taldea (kideen kopurua, doktore kopurua).
- Instalazioak.
- Teknikak/teknologiak.
- Eskarmentua: zenbat urte daramatzen ildo hori jorratzen, ISI argitalpenen kopurua, patente kopurua, zuzendutako tesien kopurua.
- Hitz gakoak.
- Horrekin lotuta dauden eta gauzatzen ari diren proiektuak (gehienez 10): titulua eta proiektu bakoitzaren finantza-erakundea.
- Ikerketa arloko etorkizuneko lehentasunezko beharrak.

Kideak:



Gaur egun, Plataformako kideak Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaiko kideak dira. Horiez gain, Zientzia Batzordeak ere osatzen du Plataforma; izan ere, Zientzia Batzordeak identifikatu egiten ditu zein diren egindako arrisku-balioespenetatik ondorioztatutako ikerketa-beharrak eta/edo aurreikusitako arrisku berriak.

Emaitzak:

Plan hau egitean Plataformak honako informazioa zeukan:

- Elikagaien Segurtasun arloko 100 ikerketa-ildo
- Ikerketa ildoen 26 arduradun
- Elikagaien Segurtasun arloko estrategia azpiarloetan sartutako ikerketa-beharrak, Plan honen 3. atalean definitutakoak. [Plataformako kideek antzemandako ikerketa behar guztiak 1. eranskinean dauden bilduta.](#)

1.2 EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordea

Helburua:

Batetik, lehentasunezko beharrak betetzen dituzten ikerketa-proiektuak baliatzea, sor litezkeen arriskuak balioztatzeko edo berriz balioztatzeko; eta, bestetik, arriskuen kudeatzaileei zientzia bikaintasun onena, berriena eta gardenena eskaintzea, erabaki koherenteak har ditzaten. Horrela, nekazaritza elikagaien arriskuak ekidin edo murriztu egingo dituzte.

Betekizunak:

Zientzia Batzordeak gauzatzen du arriskuen azterketaren lehengo fasea, arriskuak balioztatzea alegia. Honako betekizun hauek ditu:

- Arrisku berriak identifikatzea edo berriz ager litezkeen arriskuak antzematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren elikagaien arriskuekiko esposizioa balioestea, eta horien karakterizazioa egitea.
- Arriskuak balioztatzean antzemandako zalantzak eta horiek arriskuaren karakterizazioan duten eragina definitzea.
- Arriskua murrizteko dauden neurri guztiak biltzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatzen diren aztertzea.

- Zientzia-irizpenak ematea balioztatutako arriskuei buruz. Irizpen horiek jaso egingo dituzte zientzia-informazio garrantzitsua eta jarduera gomendioak arrisku hori murrizteko.
- Arriskuen balioztapenak aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen aurrean.

Ondorioz, EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan honek informazioa eta datuak emango lizkioke Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordeari, arriskuak eta arrisku berriak antzemateko. Halaber, ikerketa-ekintzen gomendioak emango lituzke azken 10 urteotan Batzorde horrek egindako Arriskuen Balioztapeneko zalantzak argitzeko.



KOOPERAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA I+G+B ARLOKO ERAGILEEN ARTEAN

2.1 Elikagai Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia

Helburua:

Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa koordinatzea EAEn ikerketa garatu, kudeatu eta horren inguruko aholkularitza ematen duten eragileen artean.

Betekizunak:

- Identifikatzea zein diren gaur egun EAEko ikerketa-ildoak, ikerketa-taldeak eta ikerketarako etorkizuneko beharrak.
- Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragilea garatzea. Plan horrek bilduko ditu EAEn arlo horretan ikerketarako lehentasunezko beharrak.
- Plana ezartzen dela zaintzea eta Planaren kontrola eta jarraipena egitea.

Kideak:

Administrazioa:

- ▶ Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak kudeatzen eta finantzatzen du EAEn arlo horretako ikerketa; ondorioz, bera izango da Mahaiko presidentea.
- ▶ Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza, Elikagaien Segurtasuna kontrolaren arduraduna.

I+G+b eragileak

Batetik, EAEn ikerketa-jarduerak gauzatzen dituzten zentro nagusiak daude ordezkaturak:

- ▶ AZTI-Tecnalia, Itsas eta Elikagaien Zentro Teknologikoa.
- ▶ NEIKER-Tecnalia, Landa Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea.
- ▶ UPV/EHU, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ▶ LEARTIKER Elikagaien Teknologia.


Beste erakunde batzuk:

Bestalde, EAEko Elikagaien Segurtasun arloko ikerketarako behar estrategikoak identifikatzen dituzten erakundeak daude ordezkaturak:

- ▶ BIOEF, Osasungintza Berritzeko eta Ikertzeko Euskal Fundazioa, euskal osasun-sare publikoko ikertzaileen ordezkari.
- ▶ IHOBE, Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- ▶ ELIKA, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.

Maiztasuna:

Mahaia urtean hirutan bilduko da, Plan honen jarraipena egiteko.



2.2 I+G+b eragileek eta nekazaritzako elikagaien sektoreak batera parte hartzea

Helburua:

Elikagaien Segurtasun arloko ikerketako eragileen (publiko zein pribatu) eta nekazaritzako elikagaien sektore pribatuaren parte hartze bateratua dinamizatzea eta sustatzea. Horrela, ikerketa-proiektuek erantzuna eman ahal izango baitiete sektorearen benetako beharrei eta eskakizunei.

Lanabesa:

IV. eranskinean zehazten dira EAEko, Estatuko eta Europako finantzazio programak eta horietako zeinek lehenesten duten I+G+b eragileen eta nekazaritzak elikagaien enpresen parte hartze bateratua ikerketa-proiektuetan.



2.3 Itunak eta lankidetzak-hitzarmenak lortzea autonomia, Estatu eta Europa mailako beste erakunde publiko batzuekin

Helburua:

Beste autonomia erkidego batzuetako I+G+b programen, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta euren baliabideak Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa-proiektuetara bideratzen dituzten Europako beste herrialde batzuen arteko finantzazioa sustatzea, Plan Eragile honetan zehaztutako lehentasun beharrak hobeto asetzeko.

Lanabesa:

- Estatu mailan, INIAk (Nekazaritza eta Elikagai arloko Ikerketa eta Teknologia Institutu Nazionala) finantzazio programak ditu, baliabideak ikerketa-proiektuetara bideratzeko. Programa horietan zenbait autonomia erkidegotako I+G+b eragileek hartzen dute parte (*IV. eranskina*).
- Europa mailan, zenbait ikerketa-proiektu batera finantzatzen dira Europako beste herrialde batzuetako gobernu eta erakundeekin. Proiektu horiek bete egiten dituzte Elikagaien Segurtasun arloko behar estrategiko bateratuak, ERANETen bidez (Europako Sareak). Eusko Jaurlaritzak parte hartzen du ERANET horietan eta ikerketarako nazioz gairik deialdiak egiten ditu, besteak beste, SAFEFOODERA, SUSFOOD. (*IV. eranskina*).

ERAGINKORTASUNA ETA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA IKERKETETAN

3.1 Ikerketarako beharrak lehenestea

Helburua:

Identifikatutako ikerketa-beharrak epe motzera eta ertainera lehenestea, ikerketa arloan ahaleginak batu, sinergiak partekatu eta giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzeko.

Lehenesteko irizpideak:

Mahaiko kideek antzemandako ikerketarako etorkizuneko beharrak honako irizpide hauen arabera lehenetsi dira:

- 0 **Eragina Elikagaien Segurtasun eta Osasun arloan.** Irizpide hau baztertzaila da, hau da, giza eta animalia osasunean eta/edo ingurumenean eraginik ez duten beharrak baztertu egingo dira lehenespenetik. Nolanahi ere, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketa Planean sartu eta etorkizunean jorratu ahal izango dira. Horretarako, adieraziko da Elikagaien Segurtasunarekin zeharka lotutako beharrak direla.
- 1 **Eragina arrisku berriak balioztatzean eta berriz balioztatzean.** Zientzia Batzordea da EAEko elikagaien arriskuak balioesteko, aztertze eta horien inguruko aholkularitza emateko organoa (63/2009 Dekretua). Beraz, berak bete beharko ditu gomendioak, eta berak argitu beharko ditu gaur egunera arte egindako 26 Arriskuen Balioztapenetan antzemandako zalantzak. Aintzat hartu beharko du lehentasun handieneko beharrek izango dutela

eragin handiena balioetsitako arriskuen karakterizazioan (altua, ertaina, baxua, oso baxua). Halaber, lehenetsi egingo ditu arrisku berriak karakterizatzeko oinarritzakoak diren ikerketa-beharrak.

- 2 **Eragina euskal nekazaritzako elikagaien katean.** ELIKAk, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaiko idazkaritza teknikoak, ikerketa behar guztiak aztertu eta aukeratutako ditu hasieran. Horretarako, aintzat hartuko du zer nolako eragina duten euskal nekazaritzako elikagaien katean eta zein den euskal herritarrek kontsumitutako elikagaiaren jatorria, ekoizpena, eraldaketa eta banaketa. Balioztapen hori behar horien eragile arduradun bakoitzak berrikusiko du.
- 3 **Bideragarritasun ekonomikoa.** Mahaian ordezkartza duten ikerketa zentroak eta unibertsitateak (AZTI, NEIKER, EHU, LEARTIKER) adituak dira Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa-ildoak garatzen; eta, ondorioz, eurek balioetsi



beharko dute etorkizuneko beharren bideragarritasun ekonomikoa. Balioztapena konplexua eta subjektiboa denez, balioei gutxi gorabeherako kostu ekonomikoari dagokion maila ezarri zaie. Halatan, beharren balioespen ekonomikoa ahalik eta errealena izango da eta Planeko arduradunei laguntza eskainiko zaie behar guztien bideragarritasun ekonomikoa aztertzean.

Eredua	
1	<50.000€
2-3 :	50.000-75.000€
4-5 :	75.000-100.000€
6-7 :	100.000-125.000€
8-9 :	125.000-150.000€
10	>150.000€

Hiru irizpideen arabera balioztapena egitean, puntuazioa 1etik 10erakoa da. 1 puntuazioak honako hau adierazten du: eragin handiena 1 eta 2 irizpideetan, eta kostu txikiena 3 irizpidean. 10 zenbakiak kontrakoa adierazten du, alegia, eragin txikiena 1 eta 2 irizpideetan eta kostu handiena 3 irizpidean.

Emitzak:

1 eta 2 irizpideetan 8 puntu edo gutxiago lortu dituzten ikerketa-beharrak lehenetsi dira; izan ere, beharraren kostu ekonomikoa (3 irizpidea) ez da erabakigarria beharrak objektiboki lehenesteko. Baina, arriskuen balioespenean eta, ondorioz, giza osasunean duten eragina (1 irizpidea) eta euskal elikakatean duten eragina (3 eragina) erabakigarriak dira ikerketa-beharrak lehenesteko.

Honako hauek dira hiru irizpideetan balorazio txikiena eman duten, eta ondorioz, lehenetsia duten ikerketa-beharren azpiarlo estrategikoak:

ARRISKU KIMIKOAK: Landare-osasunerako produktuen hondakinak, nitratoak, antibiotikoen hondakinak, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak, akrilamida, amina biogenikoak, mikotoxinak, alergenokoak...

ARRISKU BIOLOGIKOAK: Enterobakteriak, *E.coli*, *Salmonella*, *Listeria*, *Campylobacter*, mikobakteriak, Q sukarra, birus enterikoak, *S. Aureus*.

KONTSUMOA ETA OSASUNA: Kontsumo ereduak, Erabateko Dietari buruzko Azterlanak, Elikadura Ohitura Osasuntsuak.

ELIKAGAIEN ARLOKO TEKNOLOGIA: parasitoak eta alergenokoak murrizteko prozesu edo teknologia berriak.

TRAZABILITATEA: adierazle kimikoak, kalitate maila ezberdineko elikagaiak bereizteko.

II. eranskinean zehazten dira ikerketa-beharrak, lehenespenerako hiru irizpideen arabera emandako balorazioekin bat lehenetsi direnak.



3.2 Ikerketarako lehentasunezko beharrak balioestea eta onestea

Helburua:

Lehenetsitako ikerketa-beharrak balioestea eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eta Osasun Sailak aztertzea behar horien finantzazioa, eskuragarri dagoen aurrekontuaren eta sailek (Elikagaien Segurtasun arloan dituzten eskumenetan oinarrituta) dituzten estrategien arabera.

Arduradunak:

Eusko Jaurlaritzako sail ofizialek balioztatu eta onetsiko dituzte lehentasunezko ikerketa-jarduerak. Honako hauek dira elikakateko fase guztietan Elikagaien Segurtasun arloko eskumenak dituzten sailak:

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

Zuzendaritza honek koordinatuko du Planaren kudeaketa; izan ere, berak ditu ikerketa arloko eskumenak.

- Nekazaritza, elikagai, arrantza eta ozeanografia arloko I+G+b planifikatu eta programatzea. Horretarako, arlo horretako jarduera-ildoak koordinatu, sustatu eta kudeatuko ditu gainerako zuzendaritzekin batera, beren eskumeneko esparruetan.
- Elikagai-segurtasunari eta elikagai iraunkorren ekoizpen eta kontsumoari buruzko ikerketa sustatu eta koordinatzea.

- Nekazaritza-, arrantza- eta elikagai-ikerketako zentroyen eta I+G zentroyen arteko lankidetzazientifikoa sustatu eta sendotzea, Europar Batasunaren edo ikerketa finantzatzen duten beste erakunde batzuen programetan batera parte hartuz.
- Nekazaritza-, arrantza- eta elikagai-arloetan, ikertzaileen eta teknologoen prestakuntza sustatzea eta arlo horietako eta ozeanografiako ikerketaren emaitzak ezagutaraztea, ekoizpen-sistema primarioetan eta eraldaketa-sistemetan aplikatu daitezkeen.
- Nekazaritza, arrantza eta elikagaien enpresekin lankidetzaz sustatzea, I+G+b proiektuak sortzeko.
- Nekazaritza, arrantza eta elikagaien sektore eta enpresak finantzatzeko tresnak sustatzea.
- Elikagaien ekoizpen-katean nahiz kontsumoan eta elikagaien bermearekin lotutako gainerako alderdietan dauden arriskuen ebaluazioari buruzko azterketak egitea.

Honako hauek dira Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzarekin, beren eskumenen esparruan, Planaren Kudeaketan elkarlanean diharduten gainerako zuzendaritzak:



Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza

- Landare eta animalien ekoizpenari eta osasunari buruzko programa eta jarduerak eta ekoizpen bateratu eta ekologikoak egin eta koordinatzea; hala ere, lurralde historikoen eskumenak errespetatu egingo dira.
- Abereen elikadura-segurtasuna sustatzea trazabilitate-sistemen arloan.
- Animalien gaixotasunen aurkako borrokan dagozkion analitikak egiten direla kontrolatu eta kudeatzea.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

- Esperimentuzko proiektuak sustatu eta onestea arrantza, itsaski eta akuikultura arloan.
- Arrantzako sektoreko behar eta zehaztapenetara egokitzen diren finantza-tresnak aztertu eta sustatzea.

Osasun Saila

Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritza

- Osasuna babesteko politikak garatzea eta gauzatzea, batez ere ingurumen, elikagai eta uren segurtasun eta osasunarekin zerikusia daukaten programa guztiak, arrisku fisiko, kimiko zein biologikoei dagokienez.

- Osasuna eta horren determinatzaileak zaintzea eta analisi epidemiologikoa egitea, bai eta gaixotasunek talde funtzionaletan daukaten intzidentzia eta horien banaketa aztertzea ere.
- Osasun arloko arduradun gisa, indarrean dagoen legerian aurreikusten diren eskumen administratiboak erabiltzea helburu hauetarako: osasuna kontrolatzea eta erregistratzea; arriskuak balioztatzea eta publikoki esku-hartzea elikagaien higieanean eta segurtasunean, kontsumo publikoko uren kalitatean, ingurumenaren osasungarritasunean eta bioziden arloan; eta osasun publikoaren babesarekin erlazionaturiko gainerako jardueraguztiak.



Eraitzak

II. eranskinean jasotako lehenasuneko beharrak birpasatu egin ditugu, eta hortik ikusi ahal izan dugu horietako batzuk erkideak direla eta proiektu bakar batean jaso ahal direla. Proiektu

horretan beharrak identifikatu dituzten I+D+i eragileek hartuko lukete parte. Horrenbestez, hurrengo taulan jaso ditugu lehenasuneko behar erkide horiek:

ARLO	LEHENTASUNEZKO BEHARRAK KOPURUA (II.)	LEHENTASUNEZKO BEHARRAK MULTZOKAREN KOPURUA (III. eranskinean)
Arrisku kimikoak	18	8
Arrisku biologikoak	23	10
Kontsumoa eta Osasuna	3	3
Elikagaien arloko Teknologia	2	2
Metodologia-trazabilitatea	1	1
LEHENTASUNEZKO BEHARRAK GUZTIRA	47	24

III. eranskinean zehazten dira Plan hau jorratzeko berrikusi eta onetsi diren lehenasuneko ikerketa-beharrak multzoka.

* Lehenasuneko zatik jo ez diren gainerako ikerketa-beharrak Planaren urteko berrikuspena egitean landuko dira, bigarren fase batean jorratu ahal izateko. Gainera, beharrei buruzko proposamen berriak egin ahal izango dira.

3.3 Finantzazio programak

Helburua:

Lehenasuneko beharrei laguntza ekonomikoa eskainiko dieten finantzazio programak bideratzea.

Eraitzak:

IV. eranskinean zehazten dira EAEn, Estatuan eta Europan eskura dauden finantzazio programak eta horietako zeinek bideratu ahal dituzten baliabide ekonomikoak Elikagaien Segurtasun arloko ikerketa-jardueretara.

EZAGUTZA TRANSFERITZEA ETA EMAITZAK EZAGUTARAZTEA

4.1 Komunikaziorako Planak

Helburua:

Komunikaziorako Planak bere baitan hartzen ditu garatu beharreko hedapen-jarduerak, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragile honen edukiak hedatu eta ezagutarazteko.



Hedapen-jarduerak:

Plana hedatzea eta ezagutaraztea, eta behar berriak antzematea

Plana Internet bidez hedatuko da:

- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren eta ELIKAren web guneetan, publikoki hedatzeko.
- Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforman, arlo horretako EAEko ikertzaile guztiek sarbidea izan dezaten.

Halaber, Plana hedatu egingo da elikakateko ikerketa euren jardute-eremuen baitan sartuta duten EAEko foroetara eta erakundeetara (besteak beste, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa eta Elikagaien Klusterra). Bi dira helburuak:

- Ikerketa-lehentasunak ezagutaraztea, euren beharrei erantzuna emango dietelakoan.
- Euskal nekazaritza elikagaien sektoreak sortutako lehentasunezko jarduera estrategikoei buruzko proposamenak jasotzea eta Planaren berrikuspenetan sartzea.

Emaitzak jakinarazteko jardunaldiak

Emaitzak jakinarazteko jardunaldiak antolatuko dira, ikerketaren lehentasunezko beharrak asetzen dituzten ikerketa-proiektuen emaitzak jakinarazteko. Ikerketa-proiektu horiek Plana indarrean dagoen urteetan gauzatuko dira, alegia, 2011. eta 2013. urteen artean.

2. taula. Ekintza eragileak aldi baterako zehaztea

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
1.1 EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma 1.2 EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordea	2011ko martxoaren 30a	Urteko berrikuspena	Irekitze eta difusio publikoa	Urteko berrikuspena Zientzia Batzordearen bilkurak 2014 2011-2013 Proiektuak gauzatu ostean	Urteko berrikuspena Zientzia Batzordearen bilkurak 2015 2013-2014 Proiektuak gauzatu ostean	Urteko berrikuspena Zientzia Batzordearen bilkurak 2016 2015-2016 Proiektuak gauzatu ostean
2.1 Elikagai Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia	Bilkurak hiru hilean behin	Bilkurak hiru hilean behin	Bilkurak hiru hilean behin	Bilkurak lau hilean behin	Bilkurak lau hilean behin	Bilkurak lau hilean behin
2.2 I+G+b eragileek eta nekazaritzako elikagaien sektoreak batera parte hartzea	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)
2.3 Itunak eta lankidetzak-hitzarmenak lortzea autonomia, Estatu eta Europa mailako beste erakunde publiko batzuekin	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)	Urtekoa (finantzazio programen arabera)
3.1 Ikerketarako beharrak lehenestea	2011ko urtarrilaren 31	2012ko ekainaren 12a	2013ko apirilaren 11	2014ko ekaina	2015ko ekaina	2016ko ekaina
3.2 Ikerketarako lehenetsuneko beharrak balioestea eta onestea	2011ko martxoaren 30a	2012ko urriaren 16a	2013ko abenduaren 18a	2014ko azaroa	2015eko azaroa	2016ko azaroa
3.3 Finantzazio programak	Urtekoa	Urtekoa	Urtekoa	Urtekoa	Urtekoa	Urtekoa
4.1 KOMUNIKAZIORAKO PLANAK						
4.1.1 Plan Eragileak hedatzea eta ezagutaraztea	2011ko maiatzak Plan onetsi eta ezarri ostean	2012 Planaren aurkezpen batzuk	2011-2013 proiektuak transferitzeko Jardunaldia	2013-2014 proiektuak transferitzeko Jardunaldia	2014-2015 proiektuak transferitzeko Jardunaldia	2015-2016 proiektuak transferitzeko Jardunaldia
4.1.2 Emaitzak jakinarazteko jardunaldia						

Jarraian duzue zein den Plan hau kudeatuko duen egitura eta bere betekizunak:

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA ETA OSASUN SAILA

Eusko Jaurlaritzako bi sail ofizial horiei dagokie Planaren kudeaketa zuzentzea elikakateko fase guztietan; izan ere, bi sail horiek dituzte eskumenak Elikagaien Segurtasun arloan. Honako betekizun hauek dituzte:

- Elikagaien Segurtasun arloko ikerketarako lehentasunezko beharrak balioestea eta onestea.
- Finantza baliabideak bideratzea, Plana bete dadin.
- Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragile hau onestea.
- Planeko emaitzen Komunikazio Plana onestea.
- Planean egin daitezkeen aldaketak edo luzapenak berrikustea eta onestea.



7. PLANA KUDEATZEKO EGITURA

ELIKA - NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO EUSKAL FUNDAZIOA

ELIKArri dagokio Planaren idazkaritza teknikoa gauzatzea; izan ere, nekazaritza, elikagai, abeltzaintza, arrantza, kontsumo eta osasun arloan eskumenak dituzten sailei aholkularitza teknikoa eta zientzia-aholkularitza eskaintzen dien erakundea da. Honako betekizun hauek ditu:

- Planaren zirriborroa egitea.
- Jarraipenerako adierazleak neurtzea Plana betetzen ari den ala ez aztertzea.
- Lankidetzat estua eta eraginkorra izatea Mahaiko kideekin (administrazio publikoak, unibertsitateak eta ikerketa zentroak), Plana garatzean koordinazio maila ahalik eta handiena izango dela bermatzeko.
- Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma eguneratzea, ikerketa-ildoan arduradunekin batera.
- Ikerketen arduradunei aholkularitza teknikoa eskaintzea Planaren edukiari buruz.
- Planeko emaitzen Komunikazio Plana prestatzea.
- Planaren aldaketeen eta luzapenen proposamenak egitea.

ELIKAGAIEN SEGURTASUN ARLOKO IKERKETARAKO KOORDINAZIO MAHAIA

Koordinazio Mahaiaren ekimena da Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragile hau. Horregatik, Mahaiari dagokio Plana orokorrean kudeatzea, ekintza eragileak gauzatzea eta horien jarraipena egitea. Horretarako, honako betekizun hauek gauzatu behar ditu:

- Identifikatzea zeintzuk diren gaur egun EAeko ikerketa-ildoak, ikerketa-taldeak eta ikerketarako etorkizuneko beharrak.
- Plana berrikustea eta iradokizunak egitea.
- Planaren jarraipena egitea.

Honako eragile hauek ere hartzen dute parte, bigarren maila batean, Plana kudeatzen:

NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZAKO BERRIKUNTZA FOROA

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari atxikitako Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroak gauzatzen ditu - Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan - ikerketa, garapen eta berrikuntza sektoreko planak. Horien helburua da egoki kudeatzea eta planifikatzea ikerketa, garapen teknologiko eta nekazaritza eta elikagaien berrikuntza arloko ekintzak, nekazaritza, arrantza eta elikagaien sektoreko eskariei erantzuna eman ahal izateko.

Hori dela eta, Plana aurkeztu egin behar zaie Foroari eta/edo Sektoreko Planak egiteko sortu diren lan taldeei, berrius dezaten eta nekazaritza, arrantza eta elikagaien sektoreak sortutako behar estrategikoak kontuan har ditzaten.

PEICAREN BATZORDE TEKNIKOA

Batzorde Teknikoa da PEICaren koordinazio erakundea maila operatiboan. Bere eginbeharra da Plan Estrategiko honen exekuzioa koordinatzea eta jarraipena egitea. EAeko Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plan Eragile hau PEICaren euskarri denez, Batzorde Teknikoa arduratuko da Plana betearazteaz.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Batzordeko buru gisa, eta Idazkaritza Teknikoko arduradunak Batzorde horretako kideak dira.



8. FINANTZAZIOA

3A. taula. Planeko ekintza eragileen egindako kostuen (2011-2013) banaketa, urteka xehekatua.

EKINTZA ERAGILEAK	2010	2011	2012	2013	GUZTIRA
1. Zientzia ezaguera eta teknologia transferentzia sortzea					11.199 €
1.1 EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma	6.687 €	3.552 €	192 €	768 €	11.199 €
1.2 EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordea	—	—	—	—	—
2. Kooperazioa eta lankidetzak sustatzea I+G+b arloko eragileen artean					0 €
2.1 Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia	—	—	—	—	0 €
2.2 I+G+b eragileek eta nekazaritzako elikagaien sektoreak batera parte hartzea	—	—	—	—	0 €
2.3 Itunak eta lankidetzak hitzarmenak lortzea autonomia, Estatu eta Europa mailako beste erakunde publiko batzuekin	—	—	—	—	0 €
3. Eraginkortasuna eta baliabideak optimizatzea ikerketetan					1.219.443 €
3.1 Ikerketarako beharrak lehenestea	—	—	—	—	0 €
3.2 Ikerketarako lehentasunezko beharrak balioestea eta onestea	—	81.216 €	591.042 €	547.185 €	1.219.443 €
3.3 Finantzazio programak	—	—	—	—	0 €
4. Ezagutza transferitzea eta emaitzak ezagutaraztea					301,64 €
4.1. Komunikaziorako plana	—	—	—	301,64 €	301,64 €
PLANAREN GASTUAK GUZTIRA	6.687 €	84.768 €	591.536 €	548.255 €	1.230.944 €

3B. taula Planeko ekintza eragileen zenbatetsitako kostuen (2014-2016) banaketa, urteka xehekatua.

EKINTZA ERAGILEAK	2014	2015	2016	GUZTIRA
1. Zientzia ezaguera eta teknologia transferentzia sortzea.				576 €
1.1 EAEn Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma	192 €	192 €	192 €	576 €
1.2 EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordea	—	—	—	0 €
2. Kooperazioa eta lankidetzak sustatzea I+G+b arloko eragileen artean				0 €
2.1 Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaia	—	—	—	0 €
2.2 I+G+b eragileek eta nekazaritzako elikagaien sektoreak batera parte hartzea	—	—	—	0 €
2.3 Itunak eta lankidetzak-hitzarmenak lortzea autonomia, Estatu eta Europa mailako beste erakunde publiko batzuekin	—	—	—	0 €
3. Eraginkortasuna eta baliabideak optimizatzea ikerketetan				1.275.000 €
3.1 Ikerketarako beharrak lehenestea	—	—	—	0 €
3.2 Ikerketarako lehentasunezko beharrak balioestea eta onestea	400.000 €	425.000 €	450.000 €	1.275.000 €
3.3 Finantzazio programak	—	—	—	0 €
4. Ezagutza transferitzea eta emaitzak ezagutaraztea				4.500 €
4.1. Komunikaziorako plana	1.500 €	1.500 €	1.500 €	4.500 €
PLANAREN GASTUAK GUZTIRA	401.692 €	426.692 €	451.692 €	1.280.076 €

4. taula. Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako lehentasunen batez besteko kostuaren banaketa arlo estrategikoen arabera

ARLO ESTRATEGIKOA	LEHENTASUNEZKO BEHARRAK MULTZOKAREN KOPURUA/BEHARRAK GUZTIRA	GUTXI GORABEHERAKO KOSTUA 2011-2013
Arrisku kimikoak	Lehentasunezko 8 behar / guztira 54 behar	890.000 €
Arrisku biologikoak	Lehentasunezko 10 behar / guztira 55 behar	1.190.000 €
Kontsumoa eta Osasuna	Lehentasunezko 3 behar / guztira 20 behar	180.000 €
Elikagaien arloko Teknologia	Lehentasunezko 2 behar / guztira 23 behar	270.000 €
Metodologia-trazabilitatea	Lehentasunezko 1 behar / guztira 12 behar	130.000 €
LEHENTASUNEZKO BEHARRAK KOSTUA GUZTIRA	Lehentasunezko 24 behar / guztira 164 behar	2.660.000 €

9. BALIOESPENA ETA JARRAIPENA

Planaren jarduketa-epea aldi baterako da (2011-2013) eta epe horretan exekutatu eta zabaldu egin beharko ditu jarduera-ildoak, ekintza eragileak, lehentasunezko beharrak eta Elikagaien Segurtasun arloko lehentasunezko beharrak betetzen dituzten



ikerketa-proiektuak.

Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako Koordinazio Mahaiak egingo du ekintza eragileen eta urteroko emaitzen jarraipena eta horiek hedatzearen balioespena.

Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketa Koordinatzeko Mahaiak 2013ko apirilaren 11n eginiko osoko bilkuran, Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko xedeari jarraikiz, erabaki zen bere indarraldia luzatzea (2014-2016), "nekazaritzako elikagaien euskal katean sartu eta giza osasunean arazoak eragin ditzaketen arriskuak eta/edo perilar atzemateko, kontrolatzeko eta prebenitzeko ikerketa-proiektuen alde egin eta horiek babesteko" helburua betetzen jarraitze aldera.

